

## **ELKARTE MOTA:**

Gure negozio berria sortzeko, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak eta Negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak, edo Joint Venturaz baliatuko ginateke.

### **Lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza:**

Gure kremak egiteko frutak ekologikoak behar ditugu, hortaz, gure hornitzaileak fruta enpresak izango dira. Biok ez dugunez produktu berdina saltzen, ez diogu elkarri lehia sortzen. Elkarketa egiteko aukeratutako enpresak Haciendasbio eta sephora dira.

**Haciendas bio:** Fruta eta barazki ekologikoak ekoizten dituen enpresa bat da. Honen bidez, gure produktuak egiteko ezinbestekoak diren lehengaiak eskuratu ditugu. Gure hornitzaileak gertuakoak direnez kostuak minimizatzea eragingo du, ez dugulako urrutitik inportatu beharrik.

Horrez gain, **gure baratza** ere dugunez, bertan ere kremak egiteko frutak ekoitziko ditugu. Hau da, gure kremak haciendas bio hornitutako fruitekin, nahiz guk gure baratzean ekoitzitako lehengaiekin egingo ditugu.

**Sephora:** Sephorak kremak saltzen dituen hasiera batean gure kremak sephoraren bidez salduko ditugu, horrela ezagutzera emanez. Arrakasta izanez gero, gure webgune propioan saltzen hasiko ginateke.